

"MINA BAT, LORE BAT" PROIEKTUA



"Mina bat, lore bat" proiektua Moulud Yeslem izeneko artista eta aktibista sahararrak sortu zuen. Guregana Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkartearen eskutik iritsi zitzaigun.

ZER EGIN DUGU ?

Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 6. mailakook loreak egin ditugu, gero Saharara eramateko. Loreak plastikozko botilekin edota plastikozko poltsekin egin ditugu.



PROIEKTUA


Proiektu honetan mundu osoko eskolek parte hartzen dute, baina denok helburu berdina daukagu, Saharako biztanleei gure laguntasuna adieraztea, alegia.

Horrexegatik, loreak egiteak herri honen egoera ezagutzeko balio izan digu.

ZER GERTATZEN ARI DA SAHARAN ?

1975. urtean Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuen. Ordutik hango biztanleak egoera larrian bizi dira.

Marokoko armadak sahararren lurraldeak indarrez okupatu zituenen hasi ziren "lotsaren harresiak" eraikitzen lurralde okupatuen kontrola finkatzeko. Harresiak eraikuntza erraldoi batzuk dira, minez josiak, armada indartsu batek zainduak eta tanke, mina eta hesi arantzadunez inguratuak.



Mendebaldeko Saharako kanpamenduetan nazioarteko laguntzari esker bizi dira. Marokoko gobernuak ez die uzten lurraldetara bueltatzen. Gainera saiatzeko badira, militarrek hilko dituzte.



Hona hemen gure erakusketako argazki gehiago:



Proiektu honi buruz gehiago sakontzeko esteka honetan sartu:
<http://mouludyeslem.blogspot.com.es/2014/05/por-cada-mina-una-flor-un-jardin-de.html>.

